


JOLASAK KALKULAGAILUAREKIN



ZEIN ZIFRA FALTA DA?

Kalkulagailuaren pantailan 0-9 arteko zifrak idatziko ditugu, beti zifretako bat falta dela. Zifrok, ordenatuta edo ordenatu gabe idatzi daitezke.

Jolasaren helburua, ahal den azkarren falta den zifra zein den asmatzea da.

Falta de zifra 3 da.

EZETZ ASMATU ZEIN ZENBAKI IDATZI DUDAN?

Batek zifra sorta bat kalkulagailuan idatzi eta besteak asmatzea da helburua. Biek zifra berdinak pantailan idatzi dutela bukatu beharko luke. (Etxeko telefonoa izan daiteke adibidez)

Zifrak idatzi dituenak bestea zifraz zifra gidatuz jokatu daiteke, batetik bestera dagoen eragiketa deskribatuz.

Adibidez: 6489

Lehenengo zifra 6 da; hurrengoa -2; hurrengoa bikoitza eta azkena 1 gehituz.

TEKLA DEBEKATUEN JOLASA

Honek aukera asko ematen ditu. Hemen adibide sorta bat:

- 42 zenbakia lortu “4” eta “2” teklak erabili gabe.
- $35+47$ eragiketa egin “+” tekla erabili gabe.
- $25-14$ eragiketa egin “-” erabili gabe.
- “0” eta “1” teklak eta eragiketenak bakarrik erabiliz, lortu 65 zenbakia.

ERRONKA JOLASAK

Honakoak proposatu daitezke:

- Jokalari batek bi zenbaki aukeratzen ditu (46 eta 68, adibidez). Beste jokalariaren txanda da: zenbaki txikitik hasi eta eragiketa ahalik eta gutxien eginda zenbaki handira iristea da jolasa.
- Zenbaki bat aukeratu (120 adibidez) eta "8" tekla erabiliz eta eragiketak eginaz zenbaki horretara ahalik eta gehien hurbiltzea.
- 1,2,3,4,5,6,7,8 eta 9 zifrak erabilia 100eraino iristea, eragiketak eginaz.
- "3" tekla bakarrik erabiliz, eragiketak eginez 0-10 tarteko zenbaki guztiak lortzea.